

NIRE AURRERAPENA 1

1. Zein dira 5.311.999 zenbakiaren aurreko eta hurrengo zenbakiak?

- A Aurreko zenbakia 5.311.998 da, eta hurrengoa, berriz, 5.320.000.
- B Aurreko zenbakia 5.311.998 da, eta hurrengoa, berriz, 5.310.000.
- C Aurreko zenbakia 5.312.000 da, eta hurrengoa, berriz, 5.311.998.
- D Aurreko zenbakia 5.311.998 da, eta hurrengoa, berriz, 5.312.000.

2. Zein da aukera zuzena?

- A 3.470.111 eta hiru milioi berrogeita zazpi mila eta ehun eta hamaika berdinak dira.
- B 3.470.111 hiru milioi berrogeita zazpi mila eta ehun eta hamaika baino txikiagoa da.
- C 3.470.111 hiru milioi berrogeita zazpi mila eta ehun eta hamaika baino handiagoa da.
- D Ezin dira alderatu.

3. Nola irakurtzen da 74.123.060 zenbakia?

- A Hirurogeita hamalau milioi ehun eta hogeita hiru mila eta sei.
- B Hirurogeita hamalau milioi ehun eta hogeita hiru mila eta hirurogei.
- C Zazpiehun eta berrogei milioi ehun eta hogeita hiru mila eta seiehun.
- D Hirurogeita hamalau milioi ehun eta hogeita hiru mila eta seiehun.

4. Ordenatu zenbaki hauek txikienetik handienera:

570.850, 507.580, 578.500, 558.700

- A $578.500 < 570.850 < 558.700 < 507.580$
- B $507.580 < 558.700 < 578.500 < 570.850$
- C $507.580 > 558.700 > 570.850 > 578.500$
- D $578.500 > 570.850 > 558.700 > 507.580$

5. Hurbildu 6.789.405 zenbakia unitate-maila handienera.

- A 6
- B 6.789.000
- C 6.000.000
- D 7.000.000

6. Indonesiak 237.556.363 biztanle ditu. Hurbildu biztanle kopuru hori milioikoetara.

- A 238.000.000
- B 200.000.000
- C 237.000.000
- D 240.000.000

7. Zenbat da 378 bider 205?

- A 3.497
- B 28.875
- C 77.490
- D 60.897

8. Zein da $13 \times 13 \times 13 \times 13 \times 13$ adierazpenaren baliokidea?

- A 13^6
- B 13^5
- C 13^4
- D 13^3

9. Amari bere urtebetetzean oparitu diogun e-bookak 197 € balio zuen, baina 49 €-ko deskontua egin digute.

Zenbat kostatu zaigu gutxi gorabehera?

- A 66 €
- B 120 €
- C 150 €
- D 160 €

10. Isaac Newton MDCXLII. urtean jaio zen.

Gure zenbaki-sisteman, zer urte da hori?

- A 1642
- B 1552
- C 1952
- D 1542